

ITZULTZAILE EMERITUAK

Itzultzaileon zerrenda ikusi dudanean, zein diren oraingo honetan EIZIEK goraiatzuten dituenak, era bateko eta besteko pentsakizunak bururatu zaizkit. Hauetako batzuk norberezkoak dira, nahiko pertsonalak, omenduotako ia gehienekin zuzeneko harremanak izan ditudalako batez ere Euskaltzaindia bitarteko dela. Baina horrelako oroitzapenak ez bide dira garrantzitsuenak lan jakin eta adierazgarri baten aurkezpena egiterakoan.

Badira beste pentsakizunak, gertakariari berez dagozkionak, jakingarriagoak jotzen ditudanak, eta interesgarriagoak ere bai, une jakin bateko euskal itzulpengintzaren zenbait xehetasun objektibo aipatzen eta zehazten direnean. Horrenbestez, berarizko ikuspegi bat aurkezten ahaleginduko gara, euskal itzultzaileen historia beti ere gogoan.

Transizioko itzulpengintza

Omenduon izenak ikusterakoan, eta euskal itzulpengintzak eginikako bidea kontuan hartuz, transizio garaiko itzultzaileak direla esan behar. Izan ere, hauen lana, batez ere batzuen, oso hurbil dago gero etorriko diren berrikuntza birekin: liturgi-bibli itzulpenekin eta euskal itzulpenen profesionalizatzearekin.

Liturgi-bibli itzulpenen gertaera oso garrantzizkoa izan dela esan beharrik ez dago. Ezaugarri hauek ditu eta ibilbide hau egin du: talde lana da, euskalki desberdinetakoek egina, esaldi amankomunetan oinarritua, proklamazioko hizkera bilatzen duena (behin entzun hutsarekin baliatu beharrekoa), baturantzakoa, biblista baten kontrolpean idazle batzuen kreazioa daramana, idazkari baten ardurapean argitaratua...

Gero, bigarren urrats bat eman du bibli itzulpenak: antzekoa bada ere prozedura, baditu xehetasun berriak: idatzizko estiloari lotuagoa, batua, ordenagailuaren erabilera zabala eta abar. Erdietsi da biblia osoa, irakurtzekoa, gaurkotua, maila onekoa, tresneria berriari esker hobekuntzak sartze-

ko prestaturik dagoena. Urrats kalitatezkoa eman da euskarazko bibli itzulpenean, hori delarik urrats handienetako bat gure azkenaldiko euskaratze-lanetan.

Oraindik garrantzizkoagoa jotzen dugu egitura aldetik euskal itzultzaileen profesionalizazioa. Ezaugarri hauek ikusten dizkiogu berrikuntza honi gainbegiratu batean: eskolatzere berezia itzulpenarako, baita unibertsitate mailakoa ere; ordenagailuen erabilera bete-betekoa, ez bakarrik idazteko eta memoriarako, baizik eta hiztegiak erabiltzeko, idazketak zuzentzeko, kontsulta teknikoak eta informazioak jasotzeko...; gero ingelesa izatea gehien hirugarren hizkuntza; hiztegietan eta gramatikan emaniko urrats berriez baliatzea; itzulana ogibide bihurtu izana gure gizartean; dinamika berriago bat sortu izana sariketen bidez eta liburu-bilduma orokorren bidez. Gaur beste zerbait da euskal itzulpengintza.

Talde-lana eta profesionalizazioa direlarik gure itzulpenen ezaugarri berriak, ikustagun xehekiago goraiatuon ekarria urrats berriok ematerakoan. Ez dira talde-lanean aritu izan eta artesau-mailakoa izan da horien itzulpengintza. Hala ere, oinarritzko lan bat egin dute, prestaketa bat, gauzak xehekiago eraiki zitzaizkela belaunaldi berriak.

Ia denak Euskaltzaindikoak dira, bi euskaltzainburu (Villasante, Haritschelhar), bat buruorde eta idazkari izana (J. San Martin), bat ordezkaria (Xarriton) eta hiru urgazle. Horrek esan nahi du, karguen arabera, eragin bete izan dutela aipatu ditugun ezaugarriotan: euskara batuan eta hiztegi-gintzan eta gramatika-lanetan, itzulpengintza ere bere erretenean jartzen saiatuz.

Badira beste batzuk, itzulpengintza profesionalean zuzenean esku hartu dutenak: asmo berriak onartuz, hauek bultzatuz, eskola eta elkarteak sustatuz (J. San Martin). Eta bada ere KLASIKOAK, S.A.n, pentsamentuzko liburu mardulik ere itzuli duenik, dinamika berriagoan bere burua sartuz eta bildumako partaide izanez (Xarriton). Zuzeneko eragina izan dute bide berrien hasieretan, hor ikusten delarik denbora zaharretatik berriagotara pasabidea.

Beste ezaugarrietako bat zen ingelesa jakitea hirugarren hizkuntza bezala. Bada horrelakorik ere zerrenda honetan. Hizkuntza arrotzak gutxiago ikasten ziren 60. eta 70. hamarkadetan gaur baino; baina aipatzekoa Basteurretxea eta Maritxu Urretaren kasua, ingelesetik lan literarioak gureganatuz.

Kultur mugimenduetan, eraikuntza beraren aurretik dago, zer eta nola eraiki kontua. Transizioko itzultzaileek ez dute hainbeste zuzenean parte hartu joera berrietan, baina funtsezko lana egin dute, bereziki hizkuntzaren alorrean, eta itzulpengintza berriaren ezaugarriak bideratzekoan.

Bakoitzaren ekarriaz zerbait

Itzulpen Antologia II honetako egileen irudiek nahikoa azpimarratzen dute omendutako itzultzaile bakoitzak ispilatzen duen izaera eta nolakotasuna. Kultura zabaleko gizakiak dira, euskararen lekuko bereziak, Euskal Herri zabaleko idazle hautak eta prestuak.

Jose Basterretxea. Gure artetik beste mundura joana 1996ko apirilaren 25ean. Ikasketez Matematikan eta Fisikan unibertsitateko bi tituluak eduki arren, hizkuntzak eta hizkuntzalaritzak omen dute benetako eragina Oskillasorengan. Ingelesa ere ongi menderatzen zuen, ingeles katedra Viana Printzearen Institutuan erdiesteraino. Umore ingelesa omen zerabilkien bere ipuinetan. Euskararen garapena eta euskal literaturaren ederra izan ditu helburu, euskara homologatu baten mesedetan.

Jean Haritschelhar. Ikertzailea dugu batez ere, doktoretza tesia Pierre Topet-Etchahunen buruz egin zuelarik. Bere itzulpengintzan, ikerketaren aldetik beti ere, azpimarratzekoa da Etchahunen poesi guztien frantseserako itzulpena. Literatur arloan, batez ere poesiari dagozkionetan, agertzen du bere maisutasuna, berehala nabarmentzen delarik, itzultzerakoan ere bai, bere zehaztasuna, bere aberastasuna, bere iparraldekoen trebezia. Funtsezko eragilea dugu euskararen berrikuntzan, batez ere Euskaltzainditik egindako gestiogintza eraginkorrean.

Jose Antonio Retolaza. Euskara txikiei eta gaztetxoei irakastea helburu zuelarik, *Kili-Kili* aldizkaria sortu zuen eta zuzendu ere du, bertan itzulita argitaratzen dituelarik, besteak beste, erdarazko komiki sonatuenak. Estilo berezian, euskara argi, bizi eta gaurko erara mamituan. Urte askotako lan ona berea.

Juan San Martin. Gauza asko eta onak ditu itzuliak, batez ere euskal literaturaren hobekuntzarako. Berau izan genuen kudeatzaile 60. hamarkadako poesigintzan, azpimarratzekoak direlarik bere poesi itzulpenak, hemengo poetentzat eredugarri, kopuruz ere denen gainetik dagoelarik «Olerti»-ko poesi itzulpenetan. Juanitori zor diogu, baita ere, ikuspegi eta ahalegin berezia euskal itzulpenaren egituraketan, bai eskolatzean, bai itzultzaile elkartearen sorkuntzan eta antolaketan. Askok zor dio baita ere eibartarrari Euskaltzaindiaren berrikuntzak, gestiogintzak eta funtzionamentuak. Inor bada eta, kontuan hartzekoa XX. mendeko euskal itzulpengintzaren urrats berrietan.

Maritxu Urreta. Hizkuntzetan aditua dugu, ingelesa eta frantsesa Madrilgo «Escuela Central de Idiomas»-en ikasi eta landu dituelarik. Arnas ederreko elederrak euskaratu ditu, Jose Luis Muñoyerro bizkaitar idazle eta kazetaria denaren leienda-eitezko irakurgaiak, 60. hamarkadako itzulingu-

ru horretan. Eredugarri da ingelesaren ezagutzan, eta aintzindari gaurko joera ingeleszalean.

Luis Villasante. Honek ere katedraren, ikerketaren eta argitalpen profesionalen zerbitzurako darabilki bere itzulpengintza. Teologiako lanak plazaratzean, iturriak euskaratzen ditu, euskaraz emanaz hainbat aipamen bibliko-teologiko. Aipagarria zinez Axularren *Gero* liburua gaztelerara itzuli izana. Frantziskotar intelektual honek euskara bezain ongi darabilki gaztelera, eredu delarik guretzat bi hizkuntzon batetik besterako pasabidean. Ezin ahaztuzkoa da Aita Villasantek euskararen normalkuntzan egin digun lana, hizkuntza bere lege jatorren barruan landuz; eta ez da ahaztekoa ere gestiogintzan, Euskaltzaindiaren bitartez, burutu digun lan bikaina. Euskara barruko alor asko daude zorretan Aita Villasanterekin, eta itzulpengintza ere bai oinarrizko funtzionamentuan.

Piarres Xarriton. Zerrendako itzultzaile profesionalena, behar bada, oraindik ere itzulpengintzari gogotik emana, liburu garrantzitsu bezain zailak euskaratzen diharduela. Diogunaren lekuko, bere Frantzisko de Vitoria edo Spinozaren liburu garrantzitsuen euskaratzeak. Prestakuntza sakoneko gizona, ikerkuntzetan lan estimagarriak argitaratua, euskara aberats bezain argiaren jabea. Euskarazko pentsamoldearen zerbitzuan, osotasun bat erakusten digute bere ikerketek eta itzulpenek, euskalari on baten irudia ere agertuz.

Augustin Zubikarai. Euskal idazleen artean gutxik ager dezakete Zubikarai bezalako idatz-zerrendarik. Askok da idatzi duena, eta itzulpenak ere egin ditu, nahiz gehiago nabarmendu gai originaletan. «Lur-orotariko» idazlea dugu, kazetaria ere bai, gerra-garaiko kazetari euskalduna. Eta uste dugu —oker handirik gabe noski—, lan bat egin behar izan zuela orduan, eta itzulpengintzan ere bai, geroko idazkeran nabarmenduko zitzaiona. Zubikarai bizi direnetan zaharrena dugu zerrenda honetan. Baina trebakuntza berezia agertzen digu gaurkotasuna duten gaiak euskaratzeko orduan.

Azkena

Transizioko itzultzailetzat hartu ditugu zerrendan datozen idazleok. Gure soka berean doaz; aurreraxeago, hori bai, baina lantegi berean ari izanak eta oraindik ari direnak. Hauen lanekin argiago agertu zen gure bidea, gure bide berria. Zordun gatzazkie. Bidezko zen EIZIEk gure itzultzaile emerituei merezia duten aipamen bat denon izenean egitea, eskerronez beteriko aipamena.

Juan Mari Lekuona